

## **2016KO URRIAREN 4AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-**

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### **ZINEGOTZIAK:**

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko urriaren 4a izanda, arratsaldeko zazpiak eta zazpi zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udaltzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

### **1.- AKTEN ONESPENA**

Lehendakari andreak galdetu du Udaltzaren kideren batek esatekorik duen 2016ko irailaren 13ko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

Zkia.	Data	Edukia
154	2016/09/09	KREDITU-TXERTATZEKO ESPEDIENTEAREN ONARPENA
155	2016/09/12	GAINBALIOAK ESPEDIENTEEN ONARPENA
156	2016/09/12	OBREN LIZENTZIA EMATEA ZATIKETA HORIZONTALERAKO LA VILLA KALEKO ERAIKINEAN
157	2016/09/19	OBREN LIZENTZIA EMATEA LOKALA EGOKITZEKO ELKARTE KULTURAL BATENTZAT
158	2016/09/19	BANKUAREN ABALA ITZULTZEA
159	2016/09/21	IBILGAIKUEN ZERGA ITZULTZEA IBILGAILUAREN BAJAGATIK
160	2016/09/21	IBILGAIKUEN ZERGA ITZULTZEA IBILGAILUAREN BAJAGATIK
161	2016/09/22	OBREN LIZENTZIA EMATEA ESTALKIA BERRITZEKO ARRABAL KALEAN
162	2016/09/26	GAINBALIOAK AURKEZTEKO LUZAPENA EMATEA
163	2016/09/26	IBILGAIKUEN ZERGA ITZULTZEA IBILGAILUAREN BAJAGATIK
164	2016/09/28	KREDITU-TXERTATZEKO ESPEDIENTEAREN ONARPENA
165	2016/09/29	2016KO URRIAREN 4KO OSOKO BILKURA DEIALDIA

Quintana andreak 164 zenbakiagatik galdetu du, Alkateak adierazi du dekretu hori Rosaria erreka harri-lubeta ordaintzeko dela.

### **3.- 2017KO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA, EGOKIA BADA.**

Alkatetzaren ekimenez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zerbitzu publikoen prezioena, eta autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santikurutze Kanpezun berariaz atondutako eremuan gaua emateko nola aparkatu behar diren arautzen duen udal ordenantza fiskala aldatzeko behin-behineko onarpena emateko egindako espedientea ikusirik.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16tik 18rako artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumeneko 22 eta 47 artikulua ikusirik.

### **EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA**

Muñoz jaunak aldaketen proposamena azaldu du zehaztasunez.

Quintana andreak aipatu du araba campereko prezioen inguruan, gure erkidegoan aparkalekuak dituzten beste lekuetan ikusi duela tanga-ontziak husteagatik 3 euro ordaindu behar dela. Hortaz, prezioa handiagoa jartzeko aukera dago, geroago aldatu beharrik gabe, bereziki kontuan hartuta argindarraren balizko kontsumoa.

Muñoz jaunak esan du proposamen honekin ez dutela jendea uxatu nahi, eta lehenengo prezio honen emaitzaren arabera, geroago eta datu gehiagorekin beste kontuak aztertzeko.

Ruiz de Loizaga jaunak adierazi du Alleguin, gurearen oso antzekoa den batean, 4 euro ordaindu behar direla.

### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Onartu dute Kaixo Udal Taldeko Zinegotzi jaun-andreen aldeko 5 botoekin; eta EAJ Udal Taldeko Zinegotzi jaun-andreen kontrako botoekin:

**LEHENA.-** Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zerbitzu publikoen prezioena, eta autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santikurutze Kanpezun berariaz atondutako eremuan gaua emateko nola aparkatu behar diren arautzen duen udal ordenantza fiskala aldatzeko behin-behinean onartzea.

**BIGARRENA.-** Behin-behineko onarpenaren Akordioa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan jendaurrean jarri, interesadunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurrean egon den tarte igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak erantzunez.

Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa-, eta aldaketen testua oso-osorik argitaratuko dira ALHAOn

### **ERANSKINA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza.  
Tarifen eranskinean aldaketa:

## Tarifak %1eko igoera

Autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santikurutze Kanpezun berariaz atondutako eremuan gaua emateko nola aparkatu behar diren arautzen duen udal ordenantza.

## 6. Artikulua. Zerbitzuguneak

Autokarabanak zerbitzuguneetan sartzeagatik eta bertako zerbitzuak eta udalaren birziklatze guneak erabiltzeagatik prezio publikoa ordenantza honen tarifen eranskinean jasotzen da.

Tarifen eranskina  
3 euro/egunean

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza

### 6.2.2. Tarifak.

Mantentze gimnastika, Pilates, Aerobic-a, zumba, gap edo egingo den bestelako edozein jarduera, betiere tarifa berezia ez duenean:

Erroldatuak: 39 euro/hiruhilabetean  
Erroldatu gabeak: 44 euro/hiruhilabetean

### 6.3.2. Tarifak.

#### 1.- Denboraldiko abonamendua

	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
Helduak	36 euro	43 euro
Haurrak	25 euro	31 euro
Erretiratuak	25 euro	31 euro

#### Hileko abonamendua

	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
Helduak	21 euro	28 euro
Haurrak	15 euro	21 euro
Erretiratuak	15 euro	21 euro

#### 2. Igerilekuko sarrera

Helduak: 4 euro/pertsona/egun  
Haurrak: 3 euro/pertsona/egun  
Erretiratuak: 3 euro/pertsona/egun

#### 3.- Aplikazio arauak:

- Bost urte edo gutxiago dutenek ez dute tasarik ordainduko.
- Tasaren ordainketa dela eta, haur tarifa 6 eta 15 urte bitartekoek, horiek barne, ordainduko dute.
- Tasa udal altxortegian ordainduko da zuzenean
- Tarifak aplikatzearen ondorio diren kuotak ezin dira ez denboran luzatu, ez eta murriztu ere, eta ordainagiri bidez kobratuko dira.
- Abonamenduak udal bulegoetan jaso daitezke 9.00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.
- Bai denboraldiko bai hileko abonamenduak egiteko ezinbestekoa da karnet tamainako argazkia.
- Hileko abonamendua hilabete bat hartuko du, bi daten artean.

#### **4.- FORU PLANEAN JASOTAKO OBREN (KIROL-EREMUAREN HOBEKUNTZA) LIZITAZIOAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.**

##### **ZIOEN AZALPENA:**

Santikurutze Kanpezuko kirol-ekipamenduaren zonaldeko urbanizazioaren Hobekuntza obrak egiteko kontratazioa egin behar dela ikusirik.

Lizitazioa zuzendu behar duten Administrazio-baldintzen pleguak, finantza-plana, eta Udaleko hirigintza zerbitzuen txostena ikusirik.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 5 eta 19 artikuluetan, oraingo espedientearen dokumentazioa

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16tik 18rako artikuluetan eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumeneko 22 eta 47 artikuluetan ikusirik.

##### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Administrazio-baldintza partikularren plegua, beharreko finantza-plana, Udaleko hirigintza zerbitzuak egindako txostena onartzea Santikurutze Kanpezun kirol ekipamenduaren urbanizazioa hobetzeko obrak egiteko.

**BIGARRENA.-** Aipaturiko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartzea (ohiko tramitazioa, publizitate gabeko prozedura negoziatua, eskaintza onuragarriena).

**HIRUGARRENA.-** Lizitazio prozedura ireki, eta kredituaren atxikipena egin, kontu-hartzailetari adieraziz.

**LAUGARRENA.-** Udal web-orrian [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus), kontratatzailearen profileen argitaratu; eta gutxienez, gaitasuna duten 3 enpresa gonbidatu aipaturiko obra egiteko.

**BOSGARRENA.-** A.F.A.ko diru-laguntzaren tramitazioarekin jarraitzeko beharrezko informazioa igorri.

#### **5.- ETXEBIZITZA SOZIALA ALOKATZEKO OINARRIEN ONARPENA, EGOKIA BADA.**

##### **ZIOEN AZALPENA:**

Borondatezko bajaren ondorioz, Kanpezuko Udalaren jabetza den babes sozialaren etxebizitza alokatzeko oinarri arautzaileen onarpena beharrezkoa dela ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

##### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho-batez onartu dute.

**LEHENA.-** Santikurutze Kanpezun dagoen alokairu sozialeko etxebizitza okupatzeko pertsonen hautaketarako oinarri arautzaileen onartzea.

**BIGARRENA.-** Esandako oinarriak Udalaren web orrian [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) eta iragarki taulan 15 eguneko epean argitaratu, eskaerak aurkeztu ahal izateko.

## **6.- KANPEZUKO UDALEKO GARDENTASUN PLANAREN ONARPENA, EGOKIA BADA.**

Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen xedeak diren jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea betetzeko, Alkatetzak adierazi du udal web-orrian ([www.campezo.eus](http://www.campezo.eus)) lotura eskuragarri jarri dela.

Bide honetan, gardentasunaren aldeko entitate honen konpromiso irmoa adierazi nahi da, bera lortzeko kide guztiak inplikatur.

### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute.

**LEHENA.-** Kanpezuko Udalak duen Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onaren aldeko konpromisoa onartu.

**BIGARRENA.-** Udalaren web orrian [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) espazio bat prestatu 19/2013 Gardetasun Legeak jasotzen dituen betebeharrak jasotzeko.

## **7.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA**

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotziak, Jaibus denboraldia amaitu dela azaldu du, guztira 4 zerbitzu izan dira, parte hartze handiagoarekin, 100 erabiltzaile inguru; batetik, ordutegia aldatu delako, eta bestetik, tasa merketzeagatik. Antoñanarako azken zerbitzua ez da bete.

Herrador jaunak galdetu du ea azkeneko proposamen hau gazteek eskatuta izan den.

Saenz andreak esan du ezetz, baina inolako proposmena ez zutela egin.

Saenz de Ugarte andreak aipatu du Murietara irteera gazteek antolatu behar izan dutela.

Alkateak adierazi du datorren urtean gau hau berrantolatu daitekeela.

Garcia de Acilu jaunak azaldu du gazteen eskaera badago hobe dela entzutea eta sustatzea.

Herrador jaunak esan du data horretan proposatutako kontzertua agian ez zela egokiena adin-tarte horretarako.

Alkatetzak entzun eta hitz egin zuen udaletxera hurbildu ziren gazteekin, eta erabaki zuen ez zela egokia; izan ere, asteburu horretan herrian jaien aurreko asteburua antolatuta zegoen.

Euskararen mahaiaren inguruan, hilak 28an bilera egin da urteko programazioari buruz.

Atzo ludoteka, euskaltegia, eta kirol-jarduerak hasi ziren. Horren gain, 31 eskaera badaude ingelesa ikasteko, helduak zein umeak, eta boluntario bat dago ingelesa eskolak emateko.

García de Acilu jaunak galdetu du boluntario horri buruz.

Saenz andreak argitu du eskaera bat dagoela ingelesa eskolak emateko.

Quintana andreak azaldu du gai aztertu behar dela titulazio ofiziala lortzeko aukera izateko.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du datorren urtean ingelesa ikasteko diru-laguntzak onartuko diren, aurrekontu berrietan aztertuko dela erantzun diote.

Bukatzeko azaldu du herritarren eskaera dagoela Nafarroa Oinezera joateko, eta gaia aztertzen ari direla.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, urriaren 15ean egingo den indarkeria matxistaren tailerrean 17 lagun badaudela.

Bihar, Osakidetzarekin sinatuko da notario aurrean lurzatiaren lagapena.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, udal kontuen egoera azaldu du kutxako kontaketan 150 mila euro inguru badaudela, eta gauzatze-egoera positiboa dela 138 mila eurotan.

Bide berdearen inguruan, obrak aurrera jarraitzen dute, eta urte amaierako erabilgarri izatea espero da.

Sempa delakoaren erosketa bihar sinatuko da 4.625 eurotan; ondoren, erabilerari buruzko eztabaida irekiko da.

2017ko aurrekontuen inguruan, prestatzeko bilera egingo da jendeari parte hartzeko gonbidapena luzatuz.

Administrazio batzarrekin bilera egin da aurrekontuei, beharrei eta datuen gardentasunari buruz.

Ikastolako estatutuei buruz, datorren astean badirudi gaia askatuko dela, motel doan arren.

Izkik bilera egin zuen, eta Herrador jaunak aipatu ditu aurkeztutako proiektuen inguruan, publikoak zein pribatuak; lehentasunak markatu ziren finantziarioa duten proiektuetan. Izkiko Plan Gidariari buruz eta parte hartzera gonbidatuz sortuko diren lantaldeei buruz ere hitz egin zen.

Oinarrien zain badaude lanbidetik pertsonak kontratatu ahal izateko; aurten, 4 kontratazio izango dira – 2 hilabete honetan, eta 2 azaroan-. Horrez gain, azaldu dute orain kontratatuta dagoen langila, Alfredo, hilabeteko luzapena egin zaiola, jasotako diru-laguntzan doitze bati esker.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza Zinegotziak, irailaren 26an, Kuadrillako batzarrean jorratutako gaiak azaldu ditu.

Zirkulazioari dagokionez, lantaldearen bilerak egin dira, baita Eusko Jaurlaritzako teknikari batekin ere; eta ondorioztatu da Santikurutze Kanpezuko herri-erdigunean aparkalekuak mugatzeko beharra. Aldirietarako aparkalekuak proposatu dira; dagoeneko gaia aztertzen ari da, eta berriak sortuko direnean aipatuko dira.

Saneamendu eta arazketa instalazioen plan zuzentzailearen barruan inbentarioa egiten ari da.

Irailaren 23an, ALHAOn argitaratu zen HAPO (hiri-antolamenduko plan orokorra), baita hirigintza diru-laguntzak ere.

Guardien zubiari dagokionez, egin diren laginen analisisen zain daude, udaletxeko fatxadari buruz, aurreikusitako epeak betetzen ari dira.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du eraikinen ikuskaritzari, eta balizko diru-laguntzei buruz. Esan diote interesdunei gutunak bidaltzearen zain badaudela, eta laguntzena zaila ikusten du, esan diotenarengatik.

Herrador jaunak adierazi du Kuadrillako batzarrean jorratu diren gaiak aipatzean, ona litzatekeela horiek azaltzea, eta ez soilik gai-ordena irakurtzea; izan ere, udalerrarentzat interesgarriak diren aipatu baino gai gehiago badago.

## **6.-ESKARIAK ETA GALDERAK**

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; Herrador jaunak iradoki du araba camper-eko erabiltzaileek erabilera eta instalazioen inguruan galdetegia bete zezaten.

Ruiz de Loizaga jaunak uste du eskuragarri dagoen app horretan gehitu daitekeela.

Garcia de Aciluk galdetu du app delakoaren prezioa.

Muñoz jaunak azaldu du badirela 35€ plaza/urtean, eta urteko fakturazioaren %7a.

Bukatzeko Alkate andreak artxibatu du Israelen boikotaren aurkan irekitako espediente judiziala.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak eta hogeita bostean. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.